

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultura Departamentuak Landarte jarri du abian, Nafarroako arte eta landatartasun programa

Berrikuntza, tokiko biztanleen parte-hartze aktiboa eta proiektuen etorkizuneko proiektzioa sustatuko ditu sorkuntzako tailerren bitartez, Nafarroako hamar herritan

Asteartea, 2017.eko apirilak 25

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak Landarte jarri du abian, Nafarroako arte eta landatartasun programa, 2017an Nafarroako hamar herritan sorkuntzako tailer parte-hartzaileak sustatuko dituen proposamena. Zuñigan, Galipentzun, Sesman, Otsagabian, Goizuetan, Fontellasan, Abartzuza-Errezun, Zurukainen eta oraindik zehaztu gabeko beste batean, hain zuzen ere. Apirilean eta maiatzean egingo dituzte tailerrok, eta hainbat emanaldirekin burutuko dira emaitzak ekainean.

Kultura Ekintzako Zerbitzuak bultzatutako programa da Landarte, eta Museoen Zerbitzuaren, Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren, Navarra Film Comisionen eta Iruñeko Planetarioaren, eta Aroa Upategien lankidetzat du.

Programaren helburua da Nafarroako toki entitateetan berrikuntza, bertako biztanleen parte-hartze aktiboa eta proiektuen etorkizuneko proiektzioa sustatzea, kultura ekintzako ekimen berritzaileen sorkuntzan lagunduko duten tailer parte-hartzaileen bitartez.

Ana Herrera Kulturako, Kiroleko eta Gazteriako Kontseilariak gaur aurkeztu du programa hori prentsaurrekoan, Fernando Perez Kulturako zuzendari nagusiarekin eta Pedro Maria Oteiza Zuñigako alkatearekin batera.

Land Art deritzon korrontean inspiratuta dago Landarte; Land Art da artearen eta paisaiaren uztarketa ezaugarritzat duen arte garaikideko



Programaren kartela.

korrante bat. Landartek, gainera, harago joan nahi du, eta programan parte hartzen duten herrietan bizi diren artisten zuzendaritzapean eta gidaritzapean, arte-diziplina ezberdinak uztartuko dituzten jardueren sorkuntzan, kudeaketan, ekoizpenean, marketinean eta jarraipenean inplikatu nahi ditu herritarrak.

Etorkizun oneko prozesu sortzaile berritzaile gisa sortu da programa; horrek esan nahi du proiektuen biziraupena eta bilakaera lortu nahi dela, arreta berezia jarriz programan sartuta dauden herrietako gizarte ongizateari eta ongizate ekonomikoari.

Halaber, artisten eta herritarren arteko elkargune izan nahi du programak, elkarrizketa eta ikuspegi ezberdinak sustatuz, bai eta kultura-sormena ere.

Ura da lehendabiziko edizio honen elementu nagusia. Ibaiak, errekaak, errotak, burdinolak, uharkak, urtegiak, iturriak, zubiak, iturburuak, iturbegiak eta abar izango dira 2017ko programa honen protagonistak eta eszenatokiak, baina ur gabezia ere landuko du.

Landarte 2017 ekimeneko 10 proiektuak

Abartzuza eta Errezu herrietan kale-antzerkiko bi tailer hartuko dituzte: *Bidai bat jatorrira* eta *Uraren aztarna*, Yarleku taldearen eskutik. Ekainaren 3an, larunbata, egingo du azken aurkezpena Ubagua ibaiaren arroiletan, 12:00etan, eta Irantzunen, 19:00etan. Jarduera horretan, zonako pertsonai mitologikoekin egindako antzeztutako bi ekoizbide diseinatu, idatzi eta estreinatuko dituzte. Aukeran Dantza Konpainiaren dantza garaikide emanaldia ere egongo da.

Ismael Loperena pintorea eta Carmen Puerta poeta maiatzean eta ekainean egongo dira Fontellasen, *De fuente a fuente y pinto porque me lleva la corriente* proiektuarekin; diziplina anitzeko tailerrak egingo dituzte, eta Fontellaseko herritarrek eta Musika Eskolako ikasleek parte hartuko dute poesia tailerrean eta marrazki-lan garaikide bat egingo dute pinturako tailerrean. Ekainaren 25ean egingo da ekitaldi nagusia (12:00etan), eta egindako lanak aurkeztuko dituzte hantxe.

Bestalde, Terry Gilliam (Monty Phytton) zinemagilea izango da *Izarren herria* proiektuaren protagonista; dokumental bat da, auzolan-tailerretan egindakoa, eta zinemagile hori eta bere lantaldea Galipentzun *El hombre que mató a Don Quijote* filma errodatzen egon zirenekoa kontatzen du. Tailer horiek amaitzeko, Gilliamek parte-hartzaileei planteatutako erronketatik abiatuta egingo den ikus-entzunezko lana aurkeztuko dute. Ekainaren 3an izango da hori, 21:00etan, eta horrekin batera, izarrak behatuko dituzte.

Goizuetan, Olatz Beobideren eskutik, herri-antzerkia berreskuratuko dute; *Goizuetan Bada* tailerra eskainiko du Beobidek, eta uztailaren 1ean (20:00etan), Goizuetako herritarrek duela 25 urte antzeztutako *Trabuko* lanaren bertsio berritua estreinatuko dute, optika berriarekin eta lengoaiaren eszeniko garaikideekin.

Otsagabian, berriz, Alicia Otaegi artista nafarrak *Udako elurra* tailerra proposatuko du, herriko Institutuko eta Eskolako ikasleek, adinekoek eta auzo-elkarteek plastikozko poltsa zuriz eraikitako elur-geruza handi bat sor dezaten. Ekainaren 18an egingo da azken aurkezpena (12:00etan).

Maite Itoiz, John Kelly eta Nicolas Albak *Lau elementuak: ura, lurra, haizea eta sua* auzolan-tailerrak eskainiko dituzte Orbaizetan, eta ekainaren 17an, diziplina anitzeko ikuskizuna egingo dute zuzeneko musikarekin, dantzarekin, kontakizunekin, eskulturekin, eszenografiarekin, performancekin eta ikus-entzunezkoekin. Euskal herri-musika errepertorioa izango du, eta bi emanaldi eskainiko dituzte: bata goizean, 12:00etan, akustikoan, harrespiletan; eta bestea gauean, 21:00etan, Orbaizetako arma-fabrikaren ondoko plazan jarritako eszenatokian.

Ur tanta bakar batekin proiektua zuzenduko dute Sesman Pascual Janinek (espartzuaren



Kontseilaria eta Kulturako zuzendari nagusia programan parte hartzen duten artistekin eta kolaboratzaileekin.

ikertzailea), Carlos Fontalesek (espartzuaren eskola nomada) eta Mari Jose Rekalde artistak, espartzuaren artisautzaren tradizioa berreskuratzeari buruzkoa. Maiatzaren 13an, eta ekainaren 10ean, 11n eta 17an izango dira tailer horiek. Tailer horien barruan, Espartzua Babesteko Plana aurkeztuko dute, Janinek idatzitakoa.

Iturrirako bidexka... proiektua egingo dute Zuñigan, marrazki-horma artistiko garaikide bat diseinatzeko eta sortzeko tailer kolaboratiboetan. Helburua izango da herriko sarreran dagoen biltegi bateko hormetan tamaina handiko horma-irudi bat egitea, Veronika artista iparramerikarraren gidaritzapean. Ekainaren 24an izango da aurkezpena, 20:00etan, eta Joxe Replay taldearen emanaldia ere egongo da ekitaldi horretan.

Zurukuaingo (Deierri) Aroa Upategietan VINTAEk (Upategiaren jabea) antolatutako material naturalekin egindako erakusketa bat antolatu dute ekainaren 23tik 25erako; nazio zein nazioarte mailako artistek esku hartuko dute, hala nola Lesley Yendel, Lucia Loren, Sandra Nuin, Roberto Pajares, Oscar Cenzano, Demetrio Navaridas eta Pamen Pereirak. Horrez gain, maiatzaren 19an, 20:00etan, tailer bat egingo da, Landarte 2017 ekimeneko proiektu guztien partaidetzarekin.

Azkenik, Uharteko Arte Garaikideko Zentroak eta Baionako Artista Garaikideen Kolektiboak gorantz doazen artista gazteen nazioarteko egoitza-proiektu ibiltarian kolaboratzen dute: Rachel Labastie eta Nicolas Delprat. Nafarroako herri abandonatu batean egingo da ikerkuntza, eta egonaldi horren emaitzarekin, erakusketa bat antolatuko da; Musee Basque de Bayonne museoak eta Uharteko museoak elkarrekin ekoiztuko dute erakusketa hori. Ekainean aurkeztuko dituzte proiektu horren xehetasunak Uharteko Arte Garaikidearen Zentroan.